

## ASTE NAGUSIKO XIX. MARMITAKO LEHIAKETA XIX CONCURSO SEMANA GRANDE DE MARMITAKO

Donostia San Sebastian Festak-ek, Gaztelubide Elkartearen, BM Supermerkatuen eta Donostiako Udalako Osasun Publiko Departamentuaren laguntzarekin, Aste Nagusiko XIX. Marmitako Lehiaketa antolatu du. Abuztuaren 15an izango da Elkano kalean, 10:00etatik 13:00etara.

Lehiaketa honen xedea da jarduera alai bat egitea elikadura nutritiboa eta iraunkorra hedatzeko, Milango hiri politikarako ituna betez. Hain zuzen, itun horri atxiki zitzaien Donostiako Udala 2017ko uztailen.

Donostia San Sebastian Festak, en colaboración con la Sociedad Gaztelubide, BM Supermercados y el Departamento de Salud Pública del Ayuntamiento de Donostia/San Sebastián, organiza el XIX Concurso Semana Grande de Marmitako, que tendrá lugar el día 15 de agosto, entre las 10:00 h y 13.00 h en la C/Elkano.

Es objeto del concurso la realización de una actividad festiva llevada a cabo en el marco divulgativo de una alimentación nutritiva y sostenible; cumpliendo con el pacto de política urbana de Milán al que se adhirió el ayuntamiento de Donostia/San Sebastián en julio de 2017.

### OINARRIAK

- Bi lagunez osatutako taldeek parte har dezakete. Sukaldari zaletuak izan behar dute, eta Aste Nagusiko web orrian eman behar dute izena.  
<https://astenagusia.donostiakultura.eus/eu/parte-hartu>
- Izena ematea 2026ko uztailaren 20tik aurrera egin ahal izango da. Izena emateko epea uztailaren 30ean bukatuko da edo 18 taldek izena emandakoan .
- Lehiaketa egiteko, parte hartzaileen kopuruak 12 bikote baino gehiagokoa izan behar du.
- BM Supermerkatuak laguntzaileak lehiakideei emango dizkie:  
Hegaluzea  
Patatak  
olioa.
- Parte hartzaileek baimenduriko gai hauek bakarrik eraman ditzakete:  
piperrak  
piper txorizeroak  
tomatea  
tipula

### BASES

- Podrán participar equipos formados por 2 personas aficionadas a la cocina que se hayan inscrito en la página web de Aste Nagusia  
<https://astenagusia.donostiakultura.eus/es/participa>
- La inscripción podrá realizarse a partir del 20 de julio de 2026. El plazo de inscripción finalizará el 30 de julio o, en su defecto, cuando se hayan inscrito 18 equipos.
- El concurso se celebrará siempre que el número de participantes inscritos supere el número de 12 parejas.
- La patrocinadora BM Supermercados pondrá a disposición de los concursantes:  
Bonito  
patatas  
aceite.
- Los participantes podrán aportar como únicos ingredientes autorizados:  
pimientos  
pimientos choriceros  
tomate  
cebolla

baratxuria  
gatza  
ardo zuria  
arrain-salda

ajo  
sal  
vino blanco  
caldo de pescado

- Beste osagai batzuk erabiliz gero, lehiara aurkeztu den bikotea lehiaketatik kanpo geratuko da.
- Parte hartzaileek eraman beharko dituzte gainerako tresnak ere, sukaldea, eltzea eta abar.
- Parte hartzaileek gutxienez 8 errazioko marmitakoa kozinatuko dute publikoaren aurrean eta lehiaketa bukatu eta gero, bakoitza berearekin geratuko da.
- Erakunde antolatzaileak lehiakideei emango dizkie: ura, gasa eta mahaia. Halaber, ontziak epaimahaikideentzat zenbakitzeaz arduratuko da.
- Epai-mahaia Gastronomiako aditu ospetsuek osatuko dute eta hartutako erabakia apelaezina izango da.

Ondokoak puntuatuko dira:

- a) Egoste-puntu.
- b) Zaporea.
- b) Kolorea.
- d) Aurkezipena.

- **SARIAK, BM Supermertatuak** babeslearen eskaintza, hauek izango dira:
  - 1.a 450 € erosketa-baleetan eta Txapela
  - 2.a 300 € erosketa-baleetan eta plaka
  - 3.a 200 € erosketa-baleetan eta plaka
- Sariak 2025eko abuztuaren 16an bertan banatuko dira, behin epaia eman ondoren. Sariak banatzerakoan irabazleak edo beren ordezkari bat bertan ez badaude, sariei uko egin diotela ulertuko da.

- La utilización de otros ingredientes conllevará la descalificación de la pareja participante.
- Además, los participantes deberán aportar los demás utensilios, cocina, cazuela, etc...
- Los concursantes tendrán la obligación de cocinar un mínimo de 8 raciones de marmitako que elaborarán de cara al público y quedará a disposición de los participantes una vez finalice el concurso.
- La organización pondrá a disposición de los concursantes, agua, gas y mesas. De la misma manera se ocupará de la numeración de las cazuelas para el jurado.
- El Jurado estará compuesto por personas cualificadas dentro del mundo de la Gastronomía, y su fallo será inapelable.

Puntuará:

- a) La cocción.
- b) El gusto.
- c) El color.
- d) Presentación.

- Los PREMIOS, cortesía de la patrocinadora **BM Supermercados**, serán los siguientes:
  - 1º.- 450 € en vales de compra y Txapela
  - 2º.- 300 € en vales de compra y placa
  - 3º.- 200 € en vales de compra y placa
- El reparto de premios tendrá lugar el mismo día 16 de agosto de 2025 una vez emitido el veredicto. La ausencia de los ganadores o representantes de los mismos en el momento de la entrega se considerará una renuncia a los premios.

Donostia, 2026ko maiatzaren 21ean

San Sebastián, 21 de mayo de 2026